

1. MUGIKORTASUN ARLOKO PROPOSAMENAK

Bost proposamen oinezkoen mugikortasuna, txirrinda bidezkoa eta garraio publikoa lehenesteko helburuarekin, kotxearen beharra gutxiagotzeko:

1. Damarriko mugikortasun gunea
2. Amutaldeko Disuasio aparkalekua
3. N-638 errepidean (aireportuko bidean zehar) autobusentzat, taxientzat, suhiltzaile eta anbulantzientzat erraila zehatz bat sortzea.
4. Hondarribia Irunekin lotzeko bide berriak (N-638 eta GI-636) oinezko, txirrinda eta garraio publikorako
5. Aparkalekuak

1.1 Damarriko Mugikortasun Gunea

Hondarribiarren mugikortasun beharrak eta turistenak ezberdin kudeatu behar dira, Hondarribia funtzionala, eroso, berdea eta segurua izateko. Honela, Damarriko Mugikortasun Gunea bereziki herritarrentzako sortu behar den eremua da, mugikortasun zerbitzu osoz hornitua herriko irteera eta sarrera fluxu nagusiak bildu eta koordinatzeko.

Hondarribiaren orografia eta auzoen dispersioa kontutan harturik, Damarri elkargune ezinbestekoa da, izan ere herritar askorentzat garraio publikorako zerbitzuak eskuragarriagoa dituztelako, Sabino Arana edo Miramarreko geltokia baino. Finean, grabitate indar handiagoa duelako herriko populazio dispersioa kontutan hartzen badugu.

Beheko infografian jasotzen da Damarriko Mugikortasun guneak eduki beharko lituzkeen zerbitzuak:

- herriko bidegorri sare osatu batekin konektatuta
- bizikletentzako aparkaleku seguruarekin (norberarenak zein eskualdeko zerbitzuarenak)
- Irun, Donostia eta Baionarekin autobusez azkar konektatua;
- herri mailako autobusarekin konektatua
- behealdean aparkalekuekin (bizilagunentzat, Alde Zaharrekoentzat eta irekia)
- kotxea eta bidaiak konpartitzeko zerbitzuekin hornituta (carpooling eta carsharing)
- on-line eskaerak jasotzeko puntuarekin



Egilea: Haizea Lekuona Legorburu

1.2 Amutaldeko Disuasio aparkalekua

Gure herriak sarrera eta irteera bakarra du. Egoera hau baliatu behar dugu gure herrira bereziki turismoak erakarrita bixitan datozen horien ibilgailuak Amuteko zubia aurretik, herri kanpoaldean geratzeko.

Aparkaleku hau ere zerbitzuz hornituta egongo da:

- izan eskualdeko autobusarekin, Damarriko Mugikortasun Gunea izanik Alde Zaharreko geltokia eta Sabino Arana Portukoa.
- Herri barneko autobusa, Damarriko Mugikortasun Gunearekin lotuta
- Herria txirrindaz bisitatzako alokairu zerbitzuarekin hornituta
- txirrinda taxi zerbitzuarekin
- parkea, komunak, mahaiak
- autobusen aparkalekua
- Karabanen aparkaleku publikoa
-

1.3 N-638 errepidean (aireportuko bidean zehar) autobusentzat, taxientzat, suhiltzaile eta anbulantzientzat erraila zehatz bat sortu.

Hondarribia berdea izateko, garraio publikoak lehentasuna izan behar du eta horretarako, eta kontutan hartuta N-638-a maiztasun askorekin kolapsatuta dagoela, bikoiztu behar da, baina ez kotxeentzako, baizik eta autobus, suhiltzaile, taxi eta anbulantzientzako.

Gure herria berdea izateaz gain, seguru ere beharko luke izan, eta momentu honetan trafiko kolapsatuek suhiltzaile zein anbulantzien zerbitzu ezinbestekoa mugatzen dute.

1.4 Hondarribia Irunekin lotzeko bide berriak (N-638 eta GI-636)

EH Bilduren iritziz Plan orokorrak aukera berriak eskaini behar ditu bi hirien arteko oinezko, txirrindazko eta autobusezko zerbitzuak seguruak, jasangarriak eta efizienteak (egunerokoak, ez aisialdirako)

izateko. Honela, eta kontutan hartuta Anaka San Miguel artean etxebizitza berriak eraikiko direla, ezinbestekoa deritzogu Hondarribiak Letxunborro hiribidearekin zuzeneko lotura berriak eraikitzea oinezko, txirrinda eta autobusarentzako azpiegiturak eraikiz. Oinez, txirrindan eta autobusez mugitzeko, kotxearentzat ez.

- Oinezko mugikortasuna eta txirrinda: Aztertu behar da Amutetik abiatuta, Josu Langiletik eta Gibeleta bitarte, oinezko eta txirrindentzako ibilbide segurua eraikitzeke aukera. Hau da, pasabide berri bat, non N-638 eta GI-636 gainean Txingudi ikastolako errotonda inguruan egin zen pasabide antzeko bi eraikitzen diren.
- Autobusa: Argi dago Donostiako loturarekin gertatu bezala, Irunekin ere autobus zerbitzu azkar, express bat izan beharko dugula etorkizunean. Autobus azkar hori, jasangarria izango litzatekeena, eta nahiz eta ez duen zergatik tranbia izan behar, garraio kolektiboko errail propioa eduki beharko du, azkarra izateko. Kontutan izanik zaila dela autobusentzako errail propioa lortzea GI-2134an (Amute - Mendeluko bidea), goian oinezko eta txirrindentzako bide propioa proposatu bezala, autobusak ere Amuteko errotondatik Letxunborrara iristeko bide azkar bat eduki beharko luke.

1.5 Aparkalekuak

Herritarrentzako aparkaleku beharra dagoela ondorioztatzeko, ezinbestekoa da **datuak edukitzea**. Horregatik herriko aparkalekuen egoeraren diagnostikoa eta hauen kudeaketa berri bat egiteko aukera aztertzea eskatzen dugu Javier Ugarte edo Donostia Kaleko aparkalekuen beharra egungo datuetan eta etorkizuneko joeretan oinarritzeko (garraio publikoaren erabilera handiagoa zerbitzu egokiagoak eskainiko direlako, konpartitzeko ereduaren indartzea..).

2. ETXEBIZITZA ARLOKO PROPOSAMENAK

Plan Orokorra aztertuta, argi geratzen da eraikigarriak diren hiri lurzoru guztiak etxebizitza pribatuetarako lehenetsi direla eta publikoak etorkizun urrutiago baterako, hau da, lurzoru urbanizagarrietan. Beraz Plan Orokor honek ez dio herriak behar duen etxebizitza publikoaren beharrari erantzuten, eta gainera bertan jasotzen den planteamendua ez da batere jasangarria.

Hau horrela izanik, EH Bilduk etxebizitza arloan hurrengo bost proposamenak aurkeztu ditu:

1. Etxebizitza berririk eraiki gabe, etxebizitza publikoak izateko neurriak martxan jartzea
2. Etxebizitza turistikoari muga ezartzea
3. Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioen beharra. Saseta enparantza eta Jostaldi frontoia arteko gunean adibidez
4. PICPUS, zaintza publikoko eremu bilakatzea
5. Eva Forest eta Alfonso Sastrenen etxea Museo Etxea bihurtzea

Udalak etxebizitza parke publiko bat edukitzeko, **hiru neurri kontutan hartzea eskatzen dugu, udalak etxebizitza parke bat eduki ahal izateko ez delako derrigorrez etxebizitza berririk eraiki behar.**

1. Herrian dauden **etxebizitza hutsak** kontutan hartu eta hauek alokairu sozialera bideratzeko ekintzak martxan jarri.
2. Zahartuta dauden etxebizitzen (edota baserrien) edota utzita dauden partzelen jabetza udalak eskuratzea, eta behin eraikina, **etxebizitza birgaituta**, alokairu sozialean eskaintzea.
3. Helduentzat **irisgarriak ez diren etxebizitzak** eta birgaitu ezin direnak, udalaren esku gera daitezela, irisgarritasun mugarik ez duten herritarrei eskaintzako. Noski, helduak irisgarriak diren etxebizitzetan bizitzeko aukera edukiko lukete.

Horregatik, HAPO-an goian aipatutako ezaugarriak betetzen dituzten etxebizitza kopuru potentzialaren zenbatekoa kontabilizatzea eskatzen dugu.

Etxebizitza potentzial hauen kopuruan eragingo duen bestelako neurri zuzen bat etxebizitza turistikoekiko jarrera da. Horregatik hauen moratoria aplikatzea eskatzen dugu eta herria bizitegi tenkatutako gune izendatzea.

Edozein kasuan, eta etxebizitza sozialak eraiki beharko direnez, datu hau kontutan hartzea eskatzen dugu: laster, lau herritarretik bat, 65 urtetik gorakoa izango dela. Beraz etxebizitza sozial berrietan **belaualdi arteko etxebizitza komunitarioen proiektuek** izan behar dute lehentasuna eta auzo girokoek.

Adibidez, Saseta enparantza (Muliatego BM) eta Jostaldi Frontoiaeren arteko gunea, horrelako etxebizitzak eraikitzeko gune egokia izango litzateke.

Honekin lotuta, eta eraikinei dagokionez **PICPUS** (Komentua), lurzoru urbanizaezin izendatzea eskatzen dugu udalaren esku gera dadin eta zaintza publikoko gune. Lehen aipatu bezala, herriko demografi beharrak kontutan hartuta, argi dago zaintza gune publikoak behar ditugula, eta zaintza publikoaren aldeko apostua egiten dugu eta gune hori horretarako egokia dela deritzogu, erresidentzia pribatu edota hotel bat izatea baino hobeto. Espazio zabala denez, herriarentzat bestelako aukera gehiago eskaini ahalko litzuzke, coworking eremua adinekoen ekonomian, sorkuntza eremua, erakusketak, dantzaldi estalien gunea.

Era berean Eva Forest eta Alfonso Sastreeren etxea, **Museo Etxea** bilakatzeko aukera aurreikusi behar da, egun Koldo Mitxelenan dagoen beraien materiala herrira ekartzeko.

3. ALDE ZAHARRERAKO PROPOSAMENAK

Alde Zaharra irisgarria izateko eta bertan zerbitzuen eskaintza areagotzeko, bi proposamen nagusi ditugu:

1. Bi igogailuri esker udaletxea eta Kasino Zaharra irisgarri bihurtuko genituzke
2. Ekipamenduei dagokionez, Alamedak eta Kasino Zaharrak, espazio berriak izango litzukete, zerbitzuen eskaintza zabalago bat izateko.

3.1 Bi igogailuri esker udaletxea eta Kasino Zaharra irisgarri bihurtu

Alde zaharra irisgarri izateko, EH Bilduren iritziz bi eremu hartu behar dira kontutan: alde batetik udal eraikina (kale nagusia) eta bere bulegoak (panpinot kalea), eta bestalde, Zaharren Egoitza. Bi gune horiek herritarren zerbitzu guneak dira, eta Alde Zaharraren irisgarritasuna planteatzerakoan bi gune horiek, fiñean herritarren mugikortasun behar orokorre, erantzun behar zaie.

Ikuspuntu hau dela eta, Plan Orokorrak Kasino Zaharrera era irisgarrian heltzeko aukera jaso behar du. Bi aukera aurreikusten ditugu:

- Sabino Aranatik, Madroñoaren aldetik. Egungo eskaileren irisgarritasun falta osatuko lukeena
- Minasoroetan, Ahaten parketik. Kasu honetan ikusten dugu Damarriko Mugikortasun gunearekin lotura zuzenagoa edukiko lukeela eta Alde Zaharraren sarrera nagusitako bat (Santa Maria atea) irisgarri egiteko aukera eskainiko lukeela. Damarri plaza era berean biziago izatea ahalbideratuko luke.

Behin Kasino Zaharraren irisgarritasuna lortuta, Kale Nagusia eta bereziki udala eta udal bulegoak irisgarriak izateko, Kasino Zaharraren parketik igogailu bat jarriko genuke Obispo plazara. Modu honetan, bi igogailuen bidez Kale Nagusira heltzeko aukera egongo litzateke.

3.2 Ekipamenduak Alamedan eta Kasino Zaharrea

Uste dugu Damarriko guneak bizitza irabaziko lukeela mugikortasun gunearekin eta Kasino Zaharreko igogailuarekin. Horregatik uste dugu Alameda gune egokia izan daiteke azoka gune estali bat bertan jartzeko, urte osoan zehar, zein merkatu konkretuak jartzeko. Eta baita ere bestelako eremu estaliren bat eraikitzeo, topagune izan dadin.

Bestalde, herritarren zahartze demografikoa kontutan hartuta, Kasino Zaharra zerbitzu osoagoz hornituta egon beharko luke. Jabeturik eraikina ez dela irisgarria eta babestua dagoenez irisgarri izateko zailtasunak dituela, bertako parkean ondorengo ekipamenduak sortzeko proposamena egiten dugu:

- Kasino zaharreko kideek kudeatuko luketen baratza bat → kasinoan egon beharko lukeen jatetxea hornitzeko
- Kasino zaharreko kideek kudeatuko luketen animalia gune bat (oilok, untxiak. Torreko eredia oinarri hartuta) → bertara haur txikiak joango dira eta jenerazio ezberdinen topagune eder bat izan daiteke.
- Tirolina gune bat → haur ez hain txikiak erabiliko luketena. Topagune.
- Kirol mantenurako aktibitate gune bat
- Eraikin berri bat adinekoentzat eskaini nahi diren ikastaro, mantentze aktibitateak, pintura, musika, irakurketa, eskulan...espazio gunea izateko

4. NATURAGUNEEN eta ONDAREAREN BABESA ETA AITORTZA

Gure hiria balio handiko natur gune askoren jabetzekoa da, hala nola, Jaizkibel, urmaelak, kostaldea, itsasoa, basoak, erreka.. eta ondarearena: harresia, San Telmo gaztelua, itsasargia, Talaia ibilbidea, GR ibilbidea, Santiago bidea ... Motzean denak aipatu ezin direnak, baina zerrenda motza izan harren, argi adierazten duena Hondarribiaren garapen ekonomikoa garen horretan oinarritu dezakegula, hau da, ekonomia berdean eta dugun ondarean.

Horregatik, Plan orokor honetan 7 eremu hauek ahalik eta gehien zaintzeko, babesteko eta udalaren esku jartzeko jarreraren aldekoak gara:

1. San Telmo Gaztelua, babesgune izatea eta bertan Jaizkibeleko interpretazio gunea sortzea, kontutan hartuta Santiago bidea, talaia ibilbidea, Jaizkibeleko babesguneak, denak hor daudela eta guzti hori erakutsiko duen espazio bat behar dugula.
2. Jaizkibeleko basoak, larreak eta kostaldea babestea eta ahalik eta gehienak esku publikoetan geratzea
3. Era berean, Asturiaga, itsasargia eta bere inguruak babestea
4. Kosta kaleko basoa babestea
5. Zaldunbordako eremuan korridore ekologikoak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla ziurtatzea
6. Jaitzubia, Eskapatxulo eta Zubietako eremua babestea
7. Zuhaitz autoktonoen babesa eta landaketa berrietan hauen aldeko apustua egitea